



# LASARTE-ORIA

ESKOLAKO AGENDA **21**  
2016 -17 IKASTURTEA



Azken 8 urte hauetan, ingurumenari buruzko lan sakona egiten ari gara eta aurtengo Eskolako Agenda 21 programak **MUGIKORTASUN JASANGARRIA**ren gaia aztertzeke aukera eman digu.

Lasarte-Oriako LHko ikastetxeak izan gara partaideak, 1.000 ikasletik gora, gure irakasleekin batera. Bakoitza gure mailan, gaia ikuspuntu desberdinetatik landu dugu. Txosten honen biez, mugikortasun jasangarriak gure bizitzan duen garrantzia helarazi nahi dizuegu. Eginkizun horretan, herritar guztiok badugu zer egin!

Orohar, prozedura berdina jarraitzen dugu gure ikastetxeetan Eskolako Agenda 21 programa martxan jartzerakoan. Lehenengo, gaia ezagutzea tokatzen da eta ondoren, ikastetxeko eta herriko egoera aztertzea. Hona hemen egindako lana eta ikasitakoaren laburpena.



## MUGIKORTASUN JASANGARRIA





## Zer ikasi dugu?

Mugikortasunaren inguruan gauza asko ikasi ditugu, baina batez ere seinaleen esanahia eta hauek errespetatzea ezinbestekoa dela. Jakin dugu zer esan nahi duen Mugikortasun Jasangarriak. Horretarako, garraiobide desberdinen abantailak eta desabantailak aztertu ditugu, zeintzuk kutsatzen duten eta zeintzuk ez ikusiz. Konturatu gara autoek asko kutsatzen dutela eta ondorioz eskolara garraio publikoan edota oinez joatea komenigarria dela. Gainera, oinez joatea osasuntsua da, lagunekin kontu kontari aritzeko tarte egokia eta herria hobeto ezagutzeko aukera ematen digu gerora bakarrik ibili ahal izateko.

Gainera, ikasitako guzti hau jolas baten bidez errepasatzeko aukera izan dugu.



## Burututako ekintzak eta lortutako emaitza orokorrak:

### ESKOLA INGURUKO BIDEA

Orohar maila guztietan etxetik eskolarako bidea aztertu dugu eta horretarako lehenengo galdetegi bat bete dugu gure ohiturak amankomunean jartzeko eta ondoren, ekainaren 5ean, Mundu mailako Ingurumen Egunarekin bat eginez, eskolako bidea oinez egin dugu.





Gure herrian dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kokapenaren arabera, bi errealitate desberdin bizi ditugu:



- Landaberri ikastola herritik at dago eta gure eskolarako bidea oso arriskutsua dela garbi azaldu da. Momentu honetan ezinezkoa da ikasleak oinez edo bizikletan joatea. Helduentzako ere arrisku handiko bidea da.
- Sasoeta ikastetxea nahiko erdigunean dago, baina nahiz eta ikasle asko eskolara oinez joan, gehienetan heldu baten laguntzarekin oraindik txikiak garelako, jabetu gara arazo asko sortzen direla gure eskoletako sarrera irteeretan beste ikasle kopuru altu bat kotxez datorrelako. Bizikleta ia ez da erabiltzen gure adinean eskolara joateko, nahiz eta askori gustatuko litzaigukeen.
- Gu eta gure gurasoen garaiak alderatu ditugu ere. Haiek gu baino gehiago mugitzen ziren oinez eta lagunekin eta gaur egun segurtasun faltagatik ez gaituzte uzten.

## BUELTAKA AUZOAN ZEHAR!

Bestalde, mugikortasuna eta jasangarritasunaren esanahiaren inguruan hitz egiten aritu gara eta irakasleekin kalera ateraz, kaleen egoera eta elementu fisikoen azterketa egin dugu. Aldi berean, oinezkoen eta gidarien jokabideak aztertu ditugu. Mantendu beharreko arauak betetzen al dira? Orohar eta erdigunean esan genezake baietz, gidariek arauak betetzen dituztela oinezkoen lehentasuna ematen, ez ordea aparkatzeko garaian, adibidez:

- Espalioetan aparkatutako motorrak eta bizikletak oinezkoen lekua oztopatzen.
- Aparkatzeko debekua zegoen lekuetan ibilgailuak aparkatuta zeuden eta garajeen sarrera-irteerak oztopatzen.
- Zenbait tokitan kotxeak bigarren ilaran aparkatuak zeuden kaleko trafikoa oztopatzen.






Bestalde, oinezkoen artean denetatik dago, batzuen jokabidea egokia da, baina badago bidea nonahi gurutzatzen duenik ere. Horretaz gain, kaleko elementuez eta garbitasunaz jabetu gara eta gai honetan denetatik topatu dugu. Erdigunean behintzat espaloiek neurri egokia dute, malda dute gurgil aulkientzako egokituta, baina zenbat tokitan eserlekurik ez dago eta garbitasun arazoren bat topatu dugu ere. Semaforoak ere faltan bota genituen zenbat pasabideetan.

## NOLA MUGITZEN GARA?

Garraibide desberdinen abantailak eta desabantailak aztertu ditugu eta Lasarte-Oria eta inguruan modu jasangarrian mugitzeko dauzkagun aukerak landu ditugu. Nola dago inguruko herriekin komunikatuta, zein aukera ditugun batetik bestera mugitzeko, bidegorriak eta oinezko bideak ahaztu gabe. Gai guzti hauek lantzeko plano eta galdetegiez baliatu gara. Bizikletaren erabileran trebatu gara.



Herrian galdetegi bat egin dugu eta etxean beste bat etxeko kotxea eta bere erabilera aztertuz. Jabetu gara ondo komunikatutako herria izan arren, autobusa eta tren ditugu, kotxearen beharra altua dela oraindik eta honek sortzen dituen aparkaleku arazoak ere, hainbat gunetako aparkaleku ezagatik gaizki aparkatzen delako. "Manttangorri" herri busa ondo baloratua dago. Udalak bidegorri sarea handitzeko egiten dituen saiakerak ondo baloratzen dituzte herritarrek.





Jabetu gara oinez eta bizikletaz ibiltzea oso ona dela, mugitzeak gaixotasunak saihesteko garrantzi handia duelako. Loditasuna heriotza sortzen duen hirugarren kausa omen da. Hori dela eta eskoletara bide seguruak eskatzen ditugu.

Poztekoa da herritarren gehiengo batek diolako prest dagoela mugikortasun jasangarri baten aldeko hainbat aldaketa egiteko.



## GURE KONPROMISOAK

1. Bakoitzak esfortzu txiki bat egingo dugu gertuen ditugun lekuetara oinez edo bizikletaz joateko.
2. Derrigorrean kotxez joan behar badugu ikastetxera gurasoei eskatuko diegu ate aurrean ez aparkatzea.
3. Gurasoei eskatuko diegu ere espaloi gainean eta oinezkoen pasabidea oztopatuz ez aparkatzea.
4. Kotxeak konpartitzeko saiakera egingo dugu, bai eskolara etortzeko, bai irteerak egiteko, bai gurasoek lanera joateko...
5. Herritik ateratzerakoan, garraio publikoa pribatuaren aurrean lehenetsiko dugu.
6. Kaletik goazenean momentu oro seinale eta zirkulazio arauak errespetatuko ditugu. Baita bidegorrien erabilera egokia egin ere.
7. Gure gurasoekin eta inguruko helduekin gai honen inguruan hitz egingo dugu beraien jokabideak aldatzen hasteko gomendatuko diegularik.
8. Eskolak dio gure konpromisoak bete arazteko gogoetak egingo dizkigula.
9. "Eskola Bidea" ekimena bultzatuko duela guraso eta irakasleak inplikatur.
10. Eta eskolarako bidearen segurtasuna hobetzeko udalarekin aztertu eta neurriak hartuko dituela.



# UDALERA ZUZENDURIKO PROPOSAMENAK

Maiatzaren 18an LHko ikastetxeetako ikasle ordezkariek Manuel Lekuona kultur etxean elkartu ginen, aurtengo lanaren emaitzak bateratu eta gure proposamenak adosteko asmotan. Jarraian, Lasarte-Orian mugikortasun jasangarriari aurre egiteko luzatu nahi dizkizuegun proposamenak dituzue.

Aurtengoan eskaerak 3 multzotan banatu ditugu, alde batetik ikastetxe bakoitzari zuzenean dagozkionak eta bestalde herri mailakoak.

## HERRI MAILAKO ESKAERAK:

### SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK:

1. Herriko erdigunean kotxeak murrizteko.
2. Bidegorri eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko.
3. Gaizki ez aparkatzeko, batez ere eskola sarreretan.
4. Jokabide desegokiak ekiditeko, "Eskola Bidea" dela azpimarratzeko seinale adierazgarriak ipini.

### BIZIKLETAK ETA BIDEGORRIAK:

5. Oinezko eta bizikleta bide sarea hobetu.
6. Bidegorriak eskoletaraino luzatu.
7. Bizikletentzako aparkalekuak jartzea herriko leku desberdinetan.
8. Bidegorrien erabilera bultzatzeko bizikletak alokairuan jarri, Donostiako DBizi sistemaren antzera.

### IRISGARRITASUNA HERRIAN:

9. Oinezkoen pasabideen segurtasuna bermatzeko semaforo eta zebrabide gehiago. Adibidez, Orian, "Ruta 33" parean, zebrabidea jarri. Ez dago modu segururik errepidea gurutzatzeko zati horretan.
10. Herriko espaloiak zabaldu hainbat tokitan. Adibidez, Kale Nagusia udal zaharraren aurrean, Sasoetako aldapa...
11. Espaloietan oinezkoen bidea oztopatzen duten ibilgailuak eta tabernetako terrazen tokia kontrolatzea eta arautegia betearaztea.

### IBILGAILUAK HERRI BARRUAN:

12. Kotxeen abiadura moteltzeko neurriak hartu: semaforo, "batxe", seinale...



## GARRAIO PUBLIKOA:

13. Garraio publikoaren erabilera sustatzeko, "Manttangorri" zerbitzuaren maiztasuna handitu eta linea desberdinetako eskaintzaren merketzea garraio enpresekin adostu.



## LANDABERRI IKASTOLA:

14. Hipodromoko zubitik ikastolara doan bidean oinezkoen segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurriak adostu Donostiako Udalarekin. Aukera desberdinak ikusten ditugu: bidea zabaldu, norantza batekoa izan dadila, espaloia edota bidegorria izan dezala...
15. Aipatutako bide honetatik ikastolara doan aldapa hobetu, lurra beheraka mugitu da.
16. Ikastola bertan jangela egongo balitz edota ordutegia jarraia izango balitz, autobusaren bidaiak murriztuko lirateke.

## SASOETA IKASTETXEA:

17. Ikasleoen segurtasuna bermatzeko gure eskolako bidea babestu. Aukera desberdinak ikusten ditugu: espaloiak zabaldu, espaloi eta errepide artean hesia jarri batez ere kotxeak espaloiara ez igotzeko...
18. Eskolako sarrera irteeretan udaltzain baten presentzia, hainbat gurasoen jarrera desegokiak ekiditeko.
19. Gure autonomia, ardurazko jarrerak bultzatzeko eta gure arteko harremanak sendotzeko, oinez egiteko bide alternatiboak diseinatzea. Hau dela eta eskolarako sarbide berri bat eskatzen dugu beheko jolasgunetik.





Hau izan da aurten, Eskolako Agenda 21 programaren barruan egindako lanaren laburpena. Eskerrik asko guztioi zuen arretagatik.